



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 29koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datuak Babesteko Sarien III. Edizioko sarituen zerrenda argitaratzen duena.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2015eko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez, Datuak Babesteko Sarien III. Edizioa deitu zen. Sarien xedea da esparru honetan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsonen eta erakundeen ohorezko aintzatespena egitea.

Epaimahaiak hautaketa ebatzi ostean, eta deialdiko 10. oinarrian xedatutakoarekin bat, honakoa

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.- Argitaratzea Datuak Babesteko Sarien III. Edizioko sarituen zerrenda, ondoko modalitate hauetan:

- Saria Datu Babesaren Arloko Ibilbide Profesionalari: Jesús Rubí Navarrete jaunari.
- Saria Datu Babesaren Ikerkuntza Arloan ex-aequo:
 - Jasone Astorga Burgo andreari, honako doktore-tesiagatik: “Ekarpen bat IP euskarridun sentsoreetan muturretik muturrerako autentifikazioa eta segurtasun gakoak ezartzeko: Ladón protokoloa”, eta
 - Pere Simón Castellano jaunari honako monografiagatik: “Ahaztura digitalaren aitorpena Espainian eta Europar Batasunean”.
- Saria Datu Babesaren Komunikazio eta Zabalkundearen Arloan: Alfonso Pacheco Cifuentes jaunari, Luis Salvador Montero jaunari eta Francisco Javier Sempere jaunari, “Privacidad lógica” blogagatik.
- Saria Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenen Arloan: honako lan-taldea osatzen duten Luis Pacheco Yañez, Ana Fernandez Cagigas, Juan Medrano Albeniz, Leire Erkoreka Anda, Carmen Bilbao Amezaga, Jon Lizarraga Sobrino eta Enrique González Arza jaun-andreei “Osakidetza-Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean Datuak Babesteko Proiektuagatik”.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 29an


Zuzendaria,
Iñaki Pariente de Prada